

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko abendua • 322. alea



zurekin
SORALUZE
EUSKALDUNAGO

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE**

 **PIL-PILEAN**
EUSKARA ELKARTEA

943 75 13 04 / 605706086
koordinazioa@pilpilean.com

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziztatuako kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateraten dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamina.

Guraso etxean, eta guraso kalean

Gaurkoan zuen arreta erakarri nahi dut Gure seme-alaben arazoekin lotuta dagoen gai garrantzitsu bati buruz jarduteko, hau hasiera baino ez da eta. Izan ere, arazoak epe motzean konpondu ezean, oso zaila izan ohi da gero horiek bideratztea, arazoa ez da desagertzen.

Beraz, artikulu hau idatzi dut duela pare bat aste izandako esperientzia txar bat zuekin elkarbanatzeko. Aurrekoan, Plaza Zaharrean nengoen, nire semeak jolasan nola ari ziren ikusten. Halako batean konturatu nintzen semea eta bera baino zaharragoa zen beste ume bat borrokan ari zirela. Eurengana joan nintzen eta gelditzeko esan nien. Ez nituen epaitu, ez nien esan zein zegoen oker eta zein zuzen, gelditzeko besterik ez nien eskatu. Nire semea gelditu zen baina bestea hasi zen euskaraz zirenak eta ez zirenak esaten. Hura baretzen saiatu nintzen esanaz lagunak zirela, baina mutilak ni iraintzen jarraitu zuen. Inguruko jendea egoeraz ohartu zen eta bi emakume gerturatu ziren mutila lasaitzeko asmoz, hala ere mutilak ez zuen jarrera aldatu eta emakumeak iraintzen hasi zen. Ziur nago emakume horiek hau irakurtzen badute gertatutakoa gogoan izango dutela. Kontua da, plazan zein kalean, maiz ikusi ohi ditudala umeak horrela jokatzeko euren lagunekin, klaseki-deekin edo zaharragoekin.

Etxean bestearekiko errespetuari garrantzia handia ematen diogu semeak hezterako orduan. Mutil eredu garri gisa ikusi nahi ditut semeak, edozeinek bere seme-alabak eredu garri ikusi nahi lituzkeen moduan. Hori dela eta, nire kezka azaldu nahi nieke etxetik kanpo umeek egiten dute-



Raja Nasir

“Gurasoak normalean euren seme-alaben alde egin ohi dute, gertatutakoaz ezer handirik jakin gabe. Horregatik, bereziki estimatzen ditut kalean edo plazan umeek egiten dutenari arreta jartzen dioten gurasoak”

nari arretarik jartzen ez dieten gurasoek. Ez dut esan nahi beste mutil hori erruduna denik nire semearekin borrokatu zelako, azken baten, biak dira umeak. Baina horrelako jarrean aurrean gurasoek ez badute umearekin hitz egiten edo ez badiote umeari gertatutakoaz hausnarrarazten hark pentsa dezake ez dela ezer gertatzen, zuzen jokatzeko ari dela, eta horrela jokatu du behin eta berri.

Esan bezala, umea ez da gertatutakoaren erruduna, bera etxetik kanpo dabilenean egiten duenari gurasoek arretarik ez jartzearen ondorioa baino ez da. Gurasoek normalean euren seme-alaben alde egin ohi dute, gertatutakoaz ezer handirik jakin gabe. Horregatik, bereziki estimatzen ditut kalean edo plazan umeek egiten dutenari arreta jartzen dioten gurasoak. Badakit gurasoek gure seme-alabak asko maite ditugula, baina eurekin denbora gehiago eman beharko genuke eta euren ekintzetan arreta gehiago jarri. Jakin beharko genuke zer gustatzen zaien, etorkizunean zer izan nahi duten, zer egiten duten, euren lagunak zein diren... Denok nahi dugu gure seme-alabak zintzoak izatea, baina horretarako euren hezkuntzan interes handiagoa jarri beharko genuke. Hortaz, kalean seme-alabekin egoten ez zareten gurasoek zera eskatzen dizuet, eurekin denbora gehiago ematea eta umeak besteekiko errespetuan heztea. Horrek pertsona zintzo eta eredu garri izateko bidea erraztuko baitie eta gizartearentzako ere onuragarria izango da. Amaitzeko artikulu hau idazten lagundu didaten lagunei eskerrak eman nahi dizkiet, euskaraz ez baina izongo moldatzen.

Euskal zaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Azala: Ferman Oregi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Julian
Ezenarro **Irukurutzeta, Morkaiko eta motordunak**

Irukurutzeta mendilerroaren gainean salaketa bat egitera gatoz, Morkaiko medi taldeari, bereziki.

Orain dela urte batzuk gogor jo zenuten Atxolin eta Idoi artean pista zela eta ez zela. Mendi horren egoera askoz larriagoa da orain, eta urteetan txartzen dijoa. Mendi gaintan bakarrik ibiltzen zarete, ala? Toki askotan mendia txikituta eta hondatuta dago. Ikusi Pol Poletik gainera doan bidea. Hondamendia. Gune batzuetan lubakiak daude. Pol Poleko bidegurutzeta hondatuta! Zazpi metroko diametroko bainera dago, motorrekin egina. Irukurutzetatik basoan sartuta Elgoibar aldera kanalak edo ubide pila bat daude. Eta Elgoibartik gainera doan bidea, Sargoatetik gora doana, dena hondatuta eta txikituta dago; eguraldi hezearekin oso arriskutsua. Pago Bedeinkatutik Ozetara doazen basoak ere hondatuta daude, ubidez josita. Non zaudete mendizale sutsuak? Hau ez da berria. Sargoatetik Pol Pol eta Gorlaraino 30 motordun zenbatu ditugu asteburu baten. Eta orain, aurpegi galantarekin hasi dira Elgoibartik Karakatera eta Irukurutzetara joaten. Gehienak zuen herrikoak dira, eta gero Urola eta Bergarakoak.

Jakin ezazue behingoz ez dagoela inongo mendian metro karraturik jaberik gabe, eta mendi honetan ere lur gehiena pribatua da. Gureak dira lurrak eta pistak; basobideak guk eginakoak eta guk ordaindutakoak. Eta abereak ere geuk jartzen ditugu, bestela ez zen egongo mendi hori dagoen bezala. Noiz salatu behar duzue 'izurri beltza' (motordunak), mendi guztiaren hondamena? Iskanbila galantak sortzen dira mendizale eta jabe batzuen artean, eta hauei aurre egiterakoan. Hau xe esaten digute: "Eskriturak ekarri! Orduan itxi lurrak! Hau denona dok!, Ni ere baserrikoa nok... Gaintetik pasatuko diat!"... Baserrikoa ala besteen lurrak izorratu eta hondatu edo baimen gabe ibiltzen denak ze izen dauka?

Irailean jabe bat erasotu zuen motordun batek. Eskerrak beste batzuk agertu ginen. Imajinatzen duzue ze iskanbila, ezta? Gu jabeak eta beraiek hartzekoak? Hori ez da gertatuko. Gu gure mendian ibiliko gara, eta agian topo egin dezakegu. Eta, orduan? Hori ez da gure ardura. Salaketak daude Bergaran, Soraluzen eta Elgoibarren, baita Aldundian ere. Ez dezan inork esan kezarik edo salaketarik egon. Zuek ere berdina egin beharko zenukete. Eta, zelan leike Enduroren aurka ez borrokatzea? Jakinda horiek zaletasuna ekartzen dutela. Eta gero mediak hondatzen. Motordunei azken deia: Alde hemendik, hondamena zarete!. Gure mendien izurri beltza. Ibili herriko enparantzan, hori bai denona dela-eta! Edo zuen etxeko eskaileretan edo zuen baserri inguruan. Ez zaituztegu ikusi ere egin nahi gure inguruan.

Lan deialdia

LUDOTEKAKO HEZITZAILE IZATEKO LAN DEIALDIA

Pil pilean Euskara Elkartek Ludotekarako bi hezitzaile behar ditu:

ESKAINTZEN DA:

Astelehenetik ostiralerako lana (astean 15-20 orduko kontratua).

Sei hilabeteko kontratua, luzatzeko aukerarekin (otsailetik uztaileira)

BETE BEHARREKO ZEREGINAK:

Ludotekako jarduna kudeatzea.

Lana modu hezitzailean eta euskaraz burutzea.

KONTUAN HARTUKO DA:

Erdi edo goi-mailako titulazioa izatea.

EGA edo titulu baliokidea izatea.

Baloratuko da:

Hezkuntza ez formalean lan-esperientzia izatea.

Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.

Soraluzekoa izatea.

Bestelakoak:

Curriculumak aurkezteko epea: abenduak 23tik urtarrilak 8ra.

Lekua: elkartean bertan edo emailz kukumixo@pilpilean.com.

Lanean hasteko eguna: otsailak 6.

Informazio gehiago Plaentxia.eus-en.

Pil pilean Euskara Elkartea



IZAGUIRRE
Igeltseritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289



ALKARRI
elkartea

www.alkarri.org
alkarri@alkarri.org ☎ 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Dizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

“Presoen auzia herritarren presioaren bidez konponduko da”

Iraultz Arluziaga
SAREko kidea



Iraultz Arluziaga Soraluzeko Sareko kidea da; euskal preso, iheslari eta deportatuen giza-eskubideen alde diharduen herritarren sarekoa. Herriko alkate eta zinegotzi ohien agerraldia lantzen jardun ostean, Sarek deituta, urtarrilaren 14an Bilbon egingo den mobilizazioa presatzen lanean dihardu buru-belarri.

Alkateetazinegotziohien adierazpenak zenbaterainoko garrantzia du?

Eli eta Sebasen egoera larriaren aurrean emandako pausoa da. Argazki horrek errepresentatzen du herrian dagoen aniztasunaren zati handi bat. Elkarbizitzaren bidean emandako pauso txikia da, baina garrantzitsua. Herrian zinegotzi eta alkate izan diren pertsona guztiekin egon gara, sekulako lana izan da, baina emaitza hor dago. Aurrerapauso bat da eta nahi genuke etorkizunean gehiago ematea.

“Argazki horrek errepresentatzen du herrian dagoen aniztasunaren zati handi bat”

Zer aldatu da argazki hori posible izan dadin?

Nere ustez, azkenengo urteotan egin dugun lanaren emaitza da. Orain dela urte batzuk enfrentamendu handia zegoen,

baina poliki poliki, harremanak landuz, elkarbizitza lantzen dihardugu. Momentu honetan, herritarren gehiengoak presoen eskubideak errespetatzearen alde dago eta horregatik izan da posible. Aietetik bost urte pasatu direnean, presoen egoerak okerrera egin du. Ostera, gizartearen gehiengoak eskatzen du gaixo larriak eta 70 urtetik gorakoak askatzea.

“Aietetik bost urte pasatu direnean, presoen egoerak okerrera egin du”

Sarek ez du amnistiarik eskatzen.

Aldaketa hori modu naturalean gertatu da. Gizartea eta egoera politikoa aldatu egin dira eta presoen eskubideen aldeko mugimendua ere bai. Tren baten ibilbidea balitz, esango genuke geltokiak bereizi direla. Lehenengo geltokian oinarriko eskakizunak egiten dira eta azkenengo geltokian presoak herrira ekartzea. Argi dago presoen auzia ez dela konponduko ETaren eta estatuaren arteko negoziazioaren bidez, herritarren presioaren bidez baizik. Horrela lortu nahi ditugu giza-eskubideak guztiondako, konponbidea eta bakea.

Norbaitek pentsatuko du “betikoak betikoa eskatzen”.

Joan zen urteko Bilboko pankartari begiratu besterik ez dago hori horrela ez dela jakiteko. Presoen eskubideen aldeko mugimendua anitzagoa eta zabalagoa da orain. Ibarretxe, Azkarraga, Lasagabaster, Rodero eta egunotan bere atxikimendua ematen diharduen jende eza guztia... Gizartearen gehiengoaren atxikimendua behar da eta atxikimendu hori lantzea da Sareren egitekoa.

“Presoen eskubideen aldeko mugimendua anitzagoa eta zabalagoa da orain”

Zein ekimen bultzatuko dituzue etorkizunean?

Espetxe politika honek eragiten duen sufrimendua amaitu dadin nahi dugu eta, horretarako, herritarrek eskubide urraketa horiek salatu ditzaten Salatzen dut ekimena jarri dugu martxan.

Abenduaren 31n elkarretaratzea egingo dugu Plaza Berrian eta photocalla-a jarriko dugu udaletxe azpian, salaketaren hatzamarrekin argazkiak ateratzeko. Horrekin batera, autobusak antolatuko ditugu urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Iaz hiru autobus bete ziren eta aurten laugarrena betetzea seinale ona litzateke.

Bernarda Garciarendako laguntza eske



Bernarda Garcia.

Bernarda Garciak, hirurogeita zazpi urteko soraluzetarrak, laguntza eskatu du bere gaixotasunari aurre egin eta eguneroko bizimodua erraztuko dion etxebi-

zitza bat aurkitu ahal izateko. Bernardak oso gaixotasun larria du eta bakarrik bizi da Atxuri kaleko etxebizitza zahar batean. Etxea ez dago isolatuta eta berogailu txiki bat besterik ez du neguko hotzari aurre egiteko. Gainera, etxea bigarren pisuan dago eta Bernardak arazo handiak ditu etxetik ateratzeko. Marian Ocarizek, laguntzen ari zaion herritarrek, salatu du "ez gizarte zerbitzuek ez inork" ez diotela Bernardari behar duen laguntzarik ematen eta eskatu du "laguntza baldintza hobeak dituen etxebizitza bat topatzeko".

Iker Aldazabal alkateak eta Irantzu Benito gizarte zerbitzuetako teknikariak onartu dute Bernardaren egoera oso larria dela eta adierazi dute euren eskuetan dagoen gutzia egiten dihardutela laguntzeko.

Hitzarmena Udalak eta zazpi elkartek

Soraluzeko Udalak eta herriko zazpi elkarte gastronomikok (Allegro, Arrano, Mahastia, Ibai Eder, Lagun Maiteak, San Inazio eta San Andres) "Gure elkartean be euskaraz bai" hitzarmena sinatu dute, elkarre-tan euskararen erabilera handitzeko helburuarekin. Elkar-teok modu bo-luntarioan hartutako konpromisoak betetzen saiatuko dira, euren eguneroko jardunean (bilera, errotulu...) euskararen presentzia handitzeko.



Alkarri elkartearen lan eskaintzak

Alkarri elkarteak hainbat zerbitzu jarriko ditu martxan urtarrilean eta zerbitzuok eskaintzeko, hainbat pertsona kontratatzeko deialdia egin du. Laguntza zerbitzua, etxe-etxe-ko ileapainketa zerbitzua eta garbiketa zerbitzua dira elkarteak eskainiko dituen zerbitzuak. Langileen jarduna eta kontratu mota zerbitzu-eskatzailerean arabera zehaztuko dira. Aukeraketa prozesuan honako hauek hartuko dira kontuan: motibazioa, enpatia, gaitasun sozia-la, euskaraz jakitea.

Lanpostuetara aurkezteko epea za-balik dago abenduaren 31ra arte. Curriculumak ondorengo helbide-ra bidali daitezke: alkarri@alkarri.org edo aurrez aurre aurkeztu, 622 725 557 zenbakira deituta. Informazio gehiago Plaentxia.eus-en.

FotoNotizia



Alkate eta zinegotzien adierazpena

Azaroaren 26an, Sarek deituta EAJ, PSE-EE, EA eta Ezker Abertzaleko alkate edo zinegotzi izan diren 44 herritarrek Eloi Uriarte eta Sebas Etxaniz soraluzetarrak aske laga ditzaten eskatzeko agerraldia egin zuten. Adierazpenean zera eskatu zuten, 70 urtetik gora dituzten edo larriki gaixo dauden pertsonak "arrazoi humanitarioengatik" aska ditzatela.

Elizpe Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortopedia ilustelina
- Inplanteak

DOMINERO BERRIKUSITIAK
FINANTZAKETA ZURE NELARUA
KONPROBESORIK GABEKO AURRUKONTUA

Tel: 943 75 25 67
Elizburu: 3 behia, Soraluze

MUTUAGIA, PADI (haserren arretarako hertz programak)

Wendata

Tel: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebean egindako
pizzapetak eta
patata frijituek

3.000 euro elkartasun kontzertuan

Azaroaren 25ean, hirurehun herritarretik gora batu ziren Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aspanogiren alde elizan eskaini zuen elkartasun kontzertua entzuteran. 323 sarrera eta 95 bono-laguntza salduta, 3.000 euro baino gehiago batu ziren. Antolatzailak eskerrak eman nahi dizkiete Soraluzeko herritarrei, beste behin erakutsi duen elkartasunagatik”.



Kalera ekimenak mobilizatzeke deia

Abenduaren 16an, Euskal preso eta iheslari ohiek bultzatu duten Kalera, Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera lelo duen dinamikarekin bat egin ez, ekitaldia egin zuten Zubian. Bertan irakurri zuten manifestuan “presoak kaleratzeko exigitu” eta “euskal gizarteari presoan alde kalera ateratzeko” eskatu zioten. Bestalde, *Kalera* ekimena “gehiengo sindikal, politiko edota erakundeek antolatutako ekimenen osagarri” dela nabarmendu zuten.



Eguneko zentroa martxan

Soraluzeko eguneko zentroak azaroan zabaldu zituen ateak, eta, gaur gaurkoz, zazpi egoiliar daude bertan (Eibarkoak lau eta Soraluzekoak hiru). Zentroa kudeatuko duen *Aita Meni* erakunde ordezkararen esanetan eskaria espero zutena baino txikiagoa izan da, zentroak 18 egoiliarrendako lekua du eta. Langileei dagokionez, Juan Fernandez soraluzetarrak eta Garbiñe Garcia bergararrak dihardute lanean.

Eguneko zentroari lotuta, EH Bilduk salatu du ez dela zabaldu zentroan lan egiteko deialdi irekirik eta, ondorioz, Udalak ez duela herritarren “aukera berdintasuna” bermatu.



Eguneko zentroa barrutik.

Gure Esku Dagok deituta ekitaldia antzokian

“Erabakitziak libriago egitten gaittu” lelopean, Soraluzeko Gure Esku Dagok “ekitaldi herritarra” antolatu du abenduaren 29rako (eguna). Udaberriari egingo den galdeketa begira “herria girotea eta soraluzetarren parte hartzea sustatzea” izango du helburu.

Ekitaldia antzokian egingo dute, arratsaldeko 19:00etan, eta aurreratu dutenez, kantua, margoa eta dantza uztartuko dituen emanaldia eskainiko dute herriko hainbat artistek.

2017an galdeketa

2017an zehar, Euskal Herriaren etorkizun politikoaren inguruan iritzia agertzeko galdeketa egingo dira Euskal Herriko 137 herritan, eta 520.000 herritar baino gehiagok izango dute iritzia emateko aukera. Soraluzen udaberriari egingo dute galdeketa, baita Debabarreneko beste herri batzuetan ere (Eibarren, Elgoibarren, Deban, Mutrikun...).



Abenduaren 29ko ekitaldiaren kartela.



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Denda
-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi
ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32



URTARRILA Lapurretak

Lapurretak kezka iturri bihurtu ziren.



OTSAILA Korner Morea

Indarkerien aurkako kolektiboaren gonbitea buruan kulerok janzteko.



APIRILA Guraso berritsu

Euskararen bidean seme-alaben bidelagun izateko trebatzen.



MAIATZA Alderdi sozialistak 110 urte

Urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuten.



UZTAILA Irene Perez txapeldun

Euskadiko txapelduna gimnasia erritmitkoan.



ABUZTUA Atxotegik txapela

Iruretarekin batera txapela eskuratu zuen Zarautzen.



URRIA Txurruken

Serafin Atxotegi auzoak Txurruken izena hartu du ofizialki.



AZAROA Elkartasuna Aspanogiri

Ehunka lagun Bergarako orkestra sinfonikoaren kontzertuan.



MARTXOA Piraguak

Ibaian piraguak ikusteak ikusmin handia sortu zuten.



EKAINA Ogitartekoa erraldoia

Aspanogiri laguntza bideratzeko ekimena.



IRAILA Benantzio Iñurrieta

Zutik ozta-ozta nator liburua aurkeztu zuten antzokian.



ABENDUA Pascual Churruca

Lantegia hartzekodunen lehiaketan sartuta.

Albiste eta bideo IKUSIENAK

Urtean zehar ikusienak izan diren albiste eta bideoen zerrenda da ondorengoa.

Albisteak (10) Plaentxia.eus-en

1. 5.744 bisita. Aratosteetako lehiaketa (Martxoa).



2. 1.151 bisita. Obusa kañoi fabrian (Apirila).
3. 1.047 bisita. Jaietako argazkiak (Uztaila).
4. 893 bisita. Kirol eguneko argazkiak (Maiatza).
5. 855 bisita. Mesedeetako jaiak (Iraila).
6. 797 bisita. Bernarda Garcíaren laguntza eskaera (Azaroa).
7. 774 bisita. Gaztañerre azokako argazkiak (Azaroa).
8. 767 bisita. Ludotekarako lan-deialdia (Urtarrila).
9. 717 bisita. Istripua Maltzagara bidean (Iraila).
10. 641 bisita. Lapurreta Intxixu Pub-ean (Martxoa).

Bideoak (8) Youtubeko kanalean

1. 1783 ikustaldi. San Andresko jaietako esketxa.



2. 1243 ikustaldi. Erregetxea (Soraluze, 1817).
3. 865 ikustaldi. Gaztañerre Azoka.
4. 779 ikustaldi. Nibiru Tatuajeak.
5. 666 ikustaldi. Egotzako gazta.
6. 654 ikustaldi. Irene Alvarez eskalatzailea.
7. 566 ikustaldi. Ekaineko bertso saioa.
8. 421 ikustaldi. Zubiko artelanaren inaugurazioa.

Aldizkari berria urtarrilean

Itxura eta edukiz eraberrituta argitaratuko dugu datorren hiletik aurrera aldizkaria. Neurritz, gaur egunekoa baino txikiagoa izango da eta modernoagoa. Diseinuari dagokionez, biziagoa izango da. Maiztasuna ez da aldatuko. Aldizkaria, orain arte bezala, hilerok argitaratuko da eta hileko azkenengo barixakuetan banatuko da soraluzetar guztien etxeetara. Aldatuko dena orrialde kopurua izango da, aldizkari berriak 32 orrialde izango ditu-eta.

Atal berriak

Orain arte aldizkariak edukia antolatzeke izan dituen atalak goitik behera aldatuko ditugu. Aldizkari berrian elkarriketa gehiago izango dira, argazki-erreportajeak, aisialdiari eta historiari lotutako atalak, pertsonen biografiak, herriko taldeei ere orrialde bat eskainiko diegu, eta beste berrikuntza asko.

Aurkezpen-gala

Aldizkari berria aurkezteko gala antzokian egingo dugu, urtarrilaren 26an,



Gaur eguneko aldizkaria eta berria aldamenean, txikiagoa.

egunean, arratsaldeko 19:00etan. Aurkezpena orain arte aldizkarian lagun izan ditugun herritarrak, taldeak, iragar-

leak eta erakundeak gonbidatuko ditugu. Elkarrekin aldizkariaren ziklo berriari hasiera emateko.

Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuak
- Etxeko tripaiki eta bistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

MABEL ILEAFAINDEGIA

Ilearentzako keratina tratamendua · Depilazioa
Ile-sustrairik gabeko permanentea · Makilajea
Manikura erdiiraunkorra
Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

Belarrak
Loradenda eta belardenda

Loreak, etikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxea garbitzeko produktu ekologikoak

Etxera eramateko zerbitzua Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11

BOLIAT

TABERNA
Pintxoak
Ardoak
Kombinatuzak
Gazte-giroko festa

Tel.: 943 02 95 02

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala, eguneko menua eta asteburuetan menu berezia

Burduntzian erretako bildotsa

Etxeko fritoak
Soufflea

Tel.: 943 75 10 02

Hortz klinika

Javier Alonso Katia Gustino
Mediku Estomatologoa Odontologoa
K.Z. 20.000.434 K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia
Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finkoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, implanteak, estetika...

Ospakizun biribil baten kronika

Abenduaren 3an hainbat belaunalditako ehunka euskaltzale batu ginen elkartearen 20 urteko ibilbidea ospatzeko.



Kalean umeak jolasean eta antzokian hogeitamarren bat euskaltzale hizkuntzarekiko bizipenak trukatzeko zihardutela ekin genion abenduaren 3ko ospakizunari. Eguerdian, askok herriko ekimen euskaltzalearen berri ematen zuen plazako erakusketari begiratu zioten; batzuk, garai zaharrak oroitzeko; beste batzuek, aldiz, lehen aldiz haren berri izateko. Plaza Berria jendez bete zen gero, helduz eta gaztetxo, eta historiaz inguratuta, *Euskarak 365 egun* leloarekin, Fernan Oregik argazkia atera zigun abadetxeko balkoitik.

Bazkaritarako 200 lagun inguruko koadrilla batu ginen kiroldegian, eta Eibarko *Bizimina* elkarteko paella jan ostean, bizipozez beteta, herriko musikariek eta puntako bi aurkezleki girotutako kantu-saioari ekin genion, japoniarrak karaokean baino pasio handiagoarekin. Handik plazara joan ginen berriz, suaren bueltan pauso bat aurrera emateko gogoia adieraztera. Ostean, fanfarreak girotu zituen herriko kaleak eta taberna barruak, Ruperren kontzertura batu ginen arte. Portzieto, papel albalak baino dizdira gehiago egin zuen gau hartan

Ordorikak eta bere taldeak. Eta halaxe eman genion amaiera egunari.

“Ospakizun biribila urteurren biribil batean” halakoxea izan zen abenduaren 3koa Pil-pileanen lan-taldearendako: ederra. Etorkizunean egiteko daukagun bidea ere halakoa izan dadila, gozagarria eta ederra.

Bideoak ikusgai

Elkartearen jardunaren berri ematen duten hainbat bideo jaso ditugu egunotan. Ikusgai daude youtuben eta Plaentxia.eus-en (bideoen atalean).



**TXOKO
KAFETEGIA**

Kalebarreneko
kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

Enkarguak egiten dira

**TXURITXU
GOZOTEGIA**

Tel.: 943 75 24 43

Asteleheneetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30 eta 17:30-20:30
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, preska, pastelak, bombotak,
udaran terrazan kafea hartzeko aukera
paragabea, etxera eramatzeko zerbitzua





sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08





KLB6
Kalebarren 6
943 57 74 26
Mutikoa eta nesken
moda guztia

f KLB6
www.klb6.com

Pepe Jeans
BLEND
TRÉZ
MUNICH
MAISON SCOTCH
LA FEMME BELON MARTE
VERO MODA
new balance

AURREZTU ENERGIA

Berotu etxea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Bazkide-kanpaina martxan

Pil-pileanek bazkide-kanpaina jarri du martxan, abenduaren 23an hasi eta martxora bitartean.

Zurekin Soraluze euskaldunago leloa Laukeratu dugu, elkarteko bazkide egitea herria euskaldunago egiten laguntzea delako.

Zergatik kanpaina?

Azken urteotan elkarrearen jarduna hazi egin da, lan-ildo eta ekimen berriak jarri ditugu martxan eta jarduera hori garatu ahal izateko herritarren ekarpena da zutabe nagusienetako bat; herritarren parte hartzea eta ekarpen ekonomikoa.

Zela egin bazkide?

Egunotan, bazkide egiteko esku-orriak banatuko ditugu etxe guztietara. Fitxa bete ostean, berau elkarteko postontzian edo Iratxo goxo-dendan laga daiteke. Gainera, hurrengo egunetan, bazkide egiteko mahaia jarriko dugu Kontzejupean.

Bazkideak kanpainan

Hainbat bazkidek parte hartu dute kanpainako esku-orria eta promozio-bideoa prestatzen. Eskerrik asko guztioi!

Kamiseta berriak salgai

Pil-pileanek hiru kamiseta berri atera ditu, bi *Egiteko gogoak batzen gaitu* leloarekin, eta bestea, *Azkenengo azeitunia plaentxiarrana* esaera ezagunarekin. Salgai daude 15 eurotan.



Kamiseten diseinuetako bat.

Bazkidetza kanpainaren kartela.

<p>Kiru Muntalak</p> <p>943 76 99 85</p> <p>kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es</p>	<p>Pol. Amillaga 5 BERGARA</p> <p>Tel. 943 76 99 85</p>	<p>■ Diseinu eta Fabrikazio lanak</p> <p>Sukaldeak Horma-armairuak Logelak Zoruak Ateak...</p>
		<p>■ Arotzeria</p> <p>lanak oro har Instalazioak</p>

Motzean

Eskolarteko futbol txapelketa

Abenduaren 30ean eskolarteko oinarrizko futboleko lehenengo txapelketa jokatu da Ezozin, goizeko 9:30etan hasi eta 18:30ak bitartean. Benjamin eta alebin mailetan bederatzirekiko 25 taldek jardungo dute, 340 ume inguru. Ezozin bidetik futbol zelaira doako autobus-zerbitzua egongo da eta gaztetxoek kiroldegian bazkalduko dute.



Boxeo txapelketa apirillean

Datorren urtereko Euskadiko Boxeoko Txapelketa Olinpikoa Soraluzen jokatuko da, Udalak eta Lopabox kirol-elkarteak sinatutako lankidetzahitzarmenari esker. Txapelketa apirilaren 1ean egingo da Arane kiroldegian, eta Udalak 3.000 euro bideratuko ditu antolaketa-lanetarako.

Txikon Nanga Parbat-eko neguko erregea

Alex Txikon lemoarra nazioarteko alpinisten historiara pasa da, neguan Nanga Parbat mendia eskalatuta. Otsailaren 24an zapaldu zuen tontorra Sapdara eta Moro mendizaleekin batera. "Tontorrean zaudenean beldurra sentitzen duzu, eta ahalik eta azkarren iritsi nahi duzu kanpaleku nagusira. Tontoretik beheruntz jaisten hasi ginenean, orduan hasi zen niretzat benetako Nanga Parbateko igoera".



"Gogoia eta pixkat sufritzen jakitea, besterik ez da behar"



Tope Natxiok taldea autoari tiraka. Argazkiak: Barren.eus.

Ines Laskurain (1989)

Laskurainek 17 urte zituela ikusi zuen lehen aldiz giza-proba erakustaldia eta txundituta geratu zen. Duela 4 urtetik Mendaroko "Tope Natxiok" taldean dihardu eta zapatuan Renault 4L bati tiraka jardun zuen.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Taldeko giroa eta kirol moduan berriz, abildade berezirik eduki behar ez izatea da gustatzen zaidana. Hemen gogoia edukitzea eta pixkat sufritzen jakitea da behar den dena.

Zer behar da halako probetan jarduteko?

Gure moduan ibiltzeko burugogorra izan behar da, eta gure entrenadoreak (Jon Sarobe) esaten duen moduan, aberia pixkat buruan.

Badira neska gehiago?

Bai, badira neska gehiago, Soraluzen bertan Miren Gallastegi ere badago gurekin tiraka. Gure taldera adibidez, neska asko etortzen dira probatzera.

Renault 4L-a Lizarpe gainera tiraka.

Nolatan sortu da erronka hau?

Mendexako giza-proba taldeari entzun genion ideia. Gure entrenatzaileak taldean komentatu zuen eta asko pentsatu gabe egitea erabaki genuen.

Zela preparatu duzue?

Lehenengo harriarekin ibili ginen aldapa gora. Saiatu gara astean entrenamendua egiten saiatu azkenengo hilabete eta erdian. Autoarekin proba bat egin

genuen ibilbide guztia probatzeko.

Zein izan da erronka honen berezitasun handiena?

Berezitasun handiena aldapa, harrialuan tiratzen dugulako. Lanean jardundako denbora ere bai (1:51:00) harriarekin 20 minutu egiten ditugu.

Abenduak 18, domeka: Proba eguna Zuen artean zer komentatzen zen?

Guk helduko giñea uste genuen. Zegoen zalantza zen egingo zuen eguraldiaren arabera zenbat denboratan lortuko genuen.


Non sufritu zenuen gehien?

Azkeneko 200 metroetan dagoen aldapan. Denok labantzen hasiginenean.

Etorkizunean giza-probetan jarraitzeko asmoa daukazu?

Bai!! Oingoiz indarrak eta animoak badituz jarraitzeko, beraz, taldea daukagun bitartean jarraitzeko asmoa daukat. Neska guztiei probatzera etortzeko gonbitea bidaltzen diet, taldean jendea behar dugu eta.





EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak, hanburgesak, pintxoak eta pizzak

Patata tortillak egiten dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel: 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa Gosariak

Astolehenetik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandekak:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

Hasi da Gaztetxeko hamabostaldia

ABEN DUAK 23 OSTI KALA 22:00 KONZERTUAK ALXATU GARRAY	ABEN DUAK 30 OSTI KALA 22:00 KONZERTUA LIHER	URTA IRILAK 3 ASTE ARTIA 18:00 SORHEN TAILERRA
ABEN DUAK 26 ASTE LEHENA 19:00 TXIKIEN BAKARRIZKETA	ABEN DUAK 31 LASUN BATA 11:30 IPURIN KONTALARIA	URTA IRILAK 5 OSTE GUNA 11:00 JOLASAK KUKUMIXOAREN
ABEN DUAK 28 ASTE AZKENA 19:00 PLANTILA TAILERRA	URTA IRILAK 2 ASTE LEHENA 19:00 PELIKULA LA VIDA DE BRIAN	URTA IRILAK 7 LASUN BATA 12:00 ERAGIKETA GIDATUA
ABEN DUAK 29 OSTE GUNA 21:00 BERTSO AFARIA TRIPWESTAREN MENA: SALAZAR, BERRA, POTIER, SOR, ALBERDIAK, DALTOR, ARZULENEN ETA FOTIER		ABETXA BERRA EKINEN EGOKILEEN HISTORIA TOKALDEAN



Gaur (barixakua) hasi eta urtarrilaren 7ra bitartean hainbat ekitaldi kultural izango dira gozagai, Gazte Asanbladak prestatu duen Hamabostaldi Kulturean: musika kontzertuak, bakarrizketa, tailerrak, ipuin kontalaria, film proiektzioa, umeendako jolasak, erakusketa... Bestalde, abenduaren 29an egingo den bertso-afari beganoan Maider Arregi Markuleta eta Eneritz Artetxe Eizagirre bertsolariek kantatuko dute eta tiketak salgai daude honezkerok.

Gazte Asanblada berriak antolatu duen lehen Hamabostaldi Kulturala izango da aurtengoa eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldietan parte hartzera.

Gaztezulo lehiaketako saria Soralezera

Ekaitz Uzinek eta Gaizka Azkaratek ekoiztutako *Arrainopola* film laburrak lehen saria lortu du Gaztezuloaldizkariaren bideo-lehiaketan. Abenduaren 16an jaso zuten 1200 euroko saria, Donostiako Tabakalera. Filma ikusgai



dago Plaentxia.eus-en.

De Cosek irabazi du 28. rallya

Zapatuan banatu zituzten Kontrargiren 28. rallyko sariak. Lehenengo bi postuetan herriko bi argazkilari sailkatu dira: Carlos de Cos (lehen saria) eta Fernando Oregi (bigarrena). Hirugarren saria Angel Zabala zetoarrarendako izan da. Herriko onena saria Mikel Valerorendako izan da eta parte hartzailerik gazteenarena Jokin Hazas eibartarrarendako.



Aurten mendigaineko indusketen erreplika



Kukumixok eta Pil-pileanek indusketen gaia aukeratu dute aurten Mari Domingi eta Olentzeroren etxe ingurua apaintzeko, eta Gizaburuako indusketen eta zutariaren erreplika jarri dituzte bertan, Udalak jarritako izeiarekin batera. Urtarrilaren 7ra arte ikusgai izango dira, umeen eta herritarren gozamenarako.

Mendiola
Industrialdea 13



BELAITZ

Tel.: 943 75 18 81
www.belaitz.com

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK




ANJEL IRAZABALBEITIA ALDAZABAL
1957-08-07 / 1994-11-18

*"Herri aske bat amesten zendun
katerikan etzuen,
ta herri horren alde borrokan
eskeini zenuen dena,
zuk onetako hazien fruituz
ase nahi dugu barrena,
ta garaipena izango duzu
omenaldirik onena.
Beti izango zaitxugu gure bihotzian."*

Lurdes eta sendia.

Zorion agurrak




Nerea Arriaga
Azaroaren 7an 7 urte.
Zorionak guapa, besarkada
Luperen partez eta muxu
pila etxekoan partez.




Lander Ruiz de Luzuriaga
Abenduaren 13an, 12 urte.
Zorionak Landertxo! Maite
zaitugu! Amatxo, Aitaxo eta
Eneko.




Nahia Mazorriaga
Abenduaren 6an, 2urte. Zorionak
sorgintxo!! Asko-asko maitxe
zaittugu politta!! Patxo potolo bat
etxeko guztien partez.



Olatz Piñeiro Gantxegi
Abenduaren 20an, 5 urte.
Zorionaaaak!!! Eta muxu
handi bat familiaren partetik!!!



Ikerne Martin Cuenca
Abenduaren 2an, 2 urte.
Zorionak maitae! Etxekoak.



Andrea Olaizola eta Intza Baglietto
Urtarrilaren 4an, 31 urte eta urtarilaren
18 an 4 urte. Zorionak polittak!! Etxekoan
partez.



Jon Agirre
Abenduaren 5ean 37
urte. Zorionak! Etxekoan
partez.



Jon Amutxastegi
Abenduaren 18an, 6 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat etxeko guztien partez!



Manex Azkorbebeitia Unamuno
Abenduak 9xan, urtebko bat!
Zorionak poxpolin eta segi alai-alai!
Muxu potolo bat etxeko danion partez.



Aetz Lasa
Abenduaren 19an bi urte.
Zorionak!!! Muxu handi
bat etxekuon partez.



Malen, Joanes eta Aitor Ugalde
Abenduaren 18an eta 19an, 8 eta 5 urte. Zorionak
hirukote! Plutoneraino eta bueltan maitxe zaitxuztegu.
Segi gure bihotzak alaitzen. Paaa! Etxekoak

Jaioberriak



Jare Beristain Casas
Abenduaren 7an jaio zen.



Asier Sanchez Gonzalez
Azaroaren 27an jaio zen.

Kintadak



1969an jaiotakoak Txurrukan.



1970an jaiotakoak Txurrukan.

Jaiotakoak eta hildakoak



Jare Beristain Casas
Asier Sanchez Gonzalez
Anas Wahid



Josefa Aldazabal Larrañaga
Consuelo Garrido Ledo

Juana Gisasola Aranbarri
Elvira Iriondo Ucin
Jose Ramon Larreategi Gabilondo
Julia Oregui Unzueta
Ion Mirena Aranburu Iburguengoitia
Antonia Cortaberria Unzueta
M. Carmen Elgueta Cortaberria



JOSE RAMON LARREATEGUI
GABILONDO
ABENDUAREN 13AN HIL ZEN 64 URTE ZITUELA

*Trotpatzerik ez!
bizitza ez da huskeria,
edan ase arte beretik
ez da aski izango
galtzear zaudelarik (Mikel Laboa/Bertolt Brecht)*

*Bizitzari zuku asko aterata baina oraindik bizitzeko asko zoneukala joan zara gure artetik.
Jakizu zuk irekitako bideek fruitu asko ematen jarraituko dutela gure inguruan, hazi
berriak jarriaz gure oroitzapen eta etorkizunean. Adiorik ez,*

Ezoziko eta Mendotzko senideak

“Jendearen poztasunak betetzen gaitu”

Jose Ayora eta Iñaki Etxabe



Ayora eta Etxabe topa egiten.

Bikote honek hogeitaz jardun du Gabonetan merkaturatzen bertarantzen diren ahoetan irribarre bat marrazteko asmoz.

Nola sortu zen ideia?

I.E: Harategi inguruan lekua zegoen aitzakiarekin Gabonetan zerbait jartzeari buruz hitz egiten hasi ginen; hogeitaz pasa dira, eta ordutik urtero apaindu dugu, behin ere ez dugu huts egin.

Etxeko ohitura da zuentzat?

J.A: Gurasoen etxean ohitura zegoen eta nire etxean ere urtero jartzen ditugu jaiotza eta zuhaitza Gabonetan, ohitura polita da.

I.E: Nik zuhaitza jarri izan dut; orain, biloba da gurean Gabonetako apaingarrien zuzendaria.

Zein da bikote honetan Da Vinci-a?

I.E: Ayorak ekartzen ditu ideiak eta nik montajea laguntzen diot, bera da txerif-a. Materiala inguruetakoa baserrietakoek (Aldaso, Iraolabeiti...) lagatzen digute.

J.A: Baserrietara gerturatzen garenean dardaraka hasten dira (kar, kar, kar).

Zer dio jendeak?

J.A: Jendea zain egoten da eta galdetzen digute ea aurten zer jarriko dugun. Egia esan, aurten denboraz larri ibili gara, beselako arazo batzuk medio, baina, azkenean, egin dugu zerbait.

Zerk betetzen zaituzte gehien?

J.A: Jendearen poztasunak eta hartutako lana baloratzeak betetzen gaitu.

I.E: Garaia heltzen denean bezeroengan sortzen den jakinmina ikustea ere polita da.

Orain arte zer jarri izan duzue?

J.A: Zuhaitz haundia bat, animaliaz betetako baso bat, arto hostoz egindako ontzak, diseinatutako katua eta azeriak, jaiotza, salda beroa edateko txosna, ikaztegi bat, ikatza saltzeko postu bat, eskuz egindako Olentzero eta Mari Domingi...

Noiz arte egoten da ikusgai?

J.A: Abenduaren hasieran jarri ohi dugu, normalean, eta kendu...kentzeko duen lanaren arabera, ezta, Iñaki?

I.E: Bai, desmontajea nire ardurara izaten da, badakizu hau talde-lana da: batzuk pentsatu eta besteek muntatu (kar, kar, kar). Lagun askok laguntzen digute.

Akordatzen naiz...

I.E: Olabarrena baserrietik ehundaka urte zituen harrizko harraska bat ekarri genueneko. Hunkigarria zen ikustea andre-gizon nagusiek nola begiratzen zioten hari.

J.A: Eta andre bati etxeko katua hil zitzaioneko. Hainbeste maite zuen, ezen diseinatu eta hemen jartzeko ekarri zuen. Ondoren ere eskatu genion, baina ordu-rako ez zekien katuak nora egin zion ihes.



**JON ARANBURU
IBARGUENGOITIA**

ABENDUAREN 8AN HIL ZEN, 65 URTE ZITUELA

Maite zenituen zaldiak, idiak, herria, lagun-arteko tertuliak, Nafarroa... eta guk maite zaitugu zu, Jon, senarra, aita, laguna.

Eskerrik asko egunotan zuen babesa eta maitasuna eskaini diguzuen guztioi.

Etxekoak.

Gaztelupe **TABERNA** **ALOKATZEN**

DA

SORALUZEN

Interesatuak deitu **639 750 781** zenbakira



euskarazko irakurleen Kluba

1. Euskaraz irakurtzea gustuko baduzu,
2. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik izan ez, baina ohitura hartu nahi baduzu,
3. Dinamizatzaile baten laguntzaz liburuak komentatu nahi badituzu,
4. Bi hilean behin liburu bat irakurtzeko konpromisioa hartzeko prest bazaude,

Egin zaitez Euskarazko Irakurleen Klubeko kide!

Interesdunak Udaleko H^o Politikaren Zerbitzuan eman dezakete izena: 943 75 30 43.
Saioak bi hilean behin izango dira, hileko 1. astelehenean, arratsaldeko 7etan.



**SORALUZKO
UDALA**
Kultura Saila



eskerrik asko eta
uite berri on!